

# Antonio Gezala

## Modernitate birrindua

### TRANBIEN ARTEKO TALKA AREATZAN (1922)

Olioa oihalean. 116 x 90 cm



Xabier Gantzarain  
@gantzarain

Zer pentsatua ematen du Arte Ederretan lizentzia lortu duen batek, ikaslerik kas-karrena izanda ere, ez ezagutzeak, kar-reran inoiz entzun ez izanak izen hau: Antonio Gezala Ayrivie (Bilbo, 1889ko ekainaren 11 - Bilbo, 1956ko irailaren 13a). Zer pentsatua ematen du.

Kirmen Uribek *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobelara ekarri du, mamira zein azalera; harrigarria da Begoña Sotari egin zion erretratua. Baina *Tranbien arteko talka Areatzan* hau ere ez da makala.

Zer pentsatua ematen du XX. mende hasierako euskal arteaz daukagun irudi lau-soak beti jotzea klixera: mundu galduaren idealizazioa, jatorri mitikoaren purutasu-



na... eta dena berdina zela pentsatzea eta horrekin geratzea, eta ez ikustea, printza bat izan arren, izan zela besterik, izan zela munduari beste begi batzuekin begiratu zionik, Antonio Gezala bezala.

Beste lan batzuetan egin zuen gisa berean, artistak hiriko giroa harrapatu nahi du bere mihisean, abiadura, zara-ta, mugimendua; abangoardien eragina nabari zaio, futurismo kutsua du. Bilbon gaude 1922an, hiriak ordurako 120.000 biztanle ditu. Hiri modernoak da Gezalak bere lanetan erakutsi nahi duena: autoak, tranbiak, argindarra, publizitatea, jendea, nor bere aterkipean. Eta bat-ba-tean istripua.

Aita merkataria zuen, mundu horixe nahi semearentzat ere. Ikasle kaskarra zuzentzeko asmoz Bordelera bidali zuten 13 urterekin, eta gero Manchester-rera, 1904an. Ordukoa da ezagutzen zaion lehen marrazki kaiera. Merkataritza ikasketak utzi eta pintore izateko erabakia hartuta itzuli zen 1907an Bilbora.

Pinturan ez ezik, afixak egiten ere erakutsi zuen bere talentua, bai eta eszenografian ere. Berak egin da Eresoinkaren ikurra. Filatelian babestu zen gerra ostean.

Barne erbestealdi luzearen ondoren hil zen, 1956an. ■